



HONDARRIBIKO UDALA

“2014ko HONDARRIBIKO INAUTERIETAKO IV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA” OINARRIAK

Hondarribiko Udaleko Turismo eta Merkataritza sailak “2014ko HONDARRIBIKO INAUTERIETAKO VI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA” antolatu du, gure merkataritza hiriaren bizitzan integratzeko eta dekorazio hoberena duen saltokia saritzeko.

DEIALDIA ETA IZENEMATEA

Lehena: Maila bakarra “2014ko Inauterietako Erakusleihoa”.

Bigarrena: Lehiaketan Hondarribian publikoari irekiak diren saltoki guztiek har dezakete parte, baldin eta erakusleihoa badute.

Hirugarrena: Izenemate orria bete beharko dute Udaletxeko Biztanleen Arreta Zerbitzu (BAZ) bulegoan (asteleheneretik ostiralera 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara). Izenematea doakoa da eta onarpen epea otsailaren 17an 09:00etan irekiko da, eta otsailaren 22an 13:00etan itxiko da. Ezarritako epetik kanpo bidalitako izenemate orri guztiak gutxietsita geldituko dira.

Laugarrena: Lehiaketan parte hartzen dutela egiaztatzeko ezaugarri bat emango zaie izena emandako saltokiei, eta erakusleihorekin toki ikusgai batean jarri beharko dute. Akreditazio hau ez badago partehartzailea lehiaketatik kanpo geratuko da.

LEHIAKETAREN GARAPENA

Bosgarrena: Garatutako gaiak inauteriaren giroarekin izango du zerikusia, eta askatasun osoa izango du teknika eta estiloari dagokionez.

Seigarrena: Erakusleihoei 2014ko otsailaren 24tik martxoaren 3ra egon beharko dute lehiaketarako aurkeztutako dekorazioarekin, biak barne, eta establezimenduek hala nahi badute aurreko eta ondorengo egunetan ere bai.

EPAIMAHAIA ETA KALIFIKAZIOIRIZPIDEA

Zazpigarrena: Erakundeak epaimahai kideak izendatuko ditu, eta gaiari buruzko gaitasuna izango dute.

Zortzigarrena: Epaimahaiak ebaluatzeko garaian ondoko ezaugarriak hartuko ditu kontuan:

- a) Diseinua
- b) Sormena
- c) Irudi komertziala eta produktuaren aurkezpena



HONDARRIBIKO UDALA

Bederatzigarrena: Epaimahaiak balorazioa egiteko establezimenduak bisitatuko ditu, eta puntuaketa 1etik 5era bitartekoa izango da. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta 2014ko martxoaren 3an jakinaraziko da emaitza.

Hamarrena: Lehiaketaren parte-hartzaileek ezin izango dute epaimahaian parte hartu eta berariaz onartu beharko dituzte oinarriak.

SARIA

Hamaikagarrena: Hiru sari emango dira:

- 1 saria: 450 €
- 2 saria: 300 €
- 3 saria: 200 €

Parte-hartzaile guztiek parte hartu dutela egiaztatzen duen diploma bat jasoko dute.

Sariak jaso ahal izateko kontu korronteko jabea dela dioen agiria ekarri beharko da. **Sari hauei dagokien PEFZ kenduko zaie.**

Hamabigarrena: Sariak ezin izango dira partekatu bi establezimendu edo gehiagoren artean.

Hamairugarrena: Sari banaketa 2014ko otsailaren 3an egingo da Udal Areto Nagusian 19:30ean hasiko den Inauterietako sari banaketa ekitaldian.

ONARPENA

Hamalugarrena: "HONDARRIBIKO 2014ko INAUTERIETAKO IV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAN" parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

HARREMANETAN JARTZEKO

Informazio gehiago Udaleko web orrian www.hondarribia.org eta Udaletxeko Biztanleen Arreta Zerbitzu (BAZ) bulegoan.

Hondarribian, 2014ko otsailaren 6an

Alkatea,

Izp.: Aitor Kerejeta Cid

HONDARRIBIKO UDALA

